



FARMAZIA – ARABAKO ESI-A

Lehen Mailako Farmazia

e-mail.: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus

2023ko urtarila	
TXERTO BERRIA HAUREN TXERTAKETA-EGUTEGIAN: DTPa-VPI	1 Jarraitu irakurtzen
AEB-ETAKO IKASLEAK TXERTATZEA ETA LAN-ARRAZOIENGATIK TXERTATZEA	2 Jarraitu irakurtzen
TXIMINO-BAZTANGA (MONKEYPOX): EGUNERATZEA	3 Jarraitu irakurtzen
COVID-19AREN KONTRAKO TXERTAKETA ESTRATEGIA EGUNERATU DA	4 Jarraitu irakurtzen
FINANTZATUTAKO FORMULA MAGISTRAL BERRIA: ATROPINA KOLIRIOA % 0,01	5 Jarraitu irakurtzen
BERRITASUNAK PRESIDEN: PRESKRIBATUTAKO ONTZIEN IRAUPENAREN MUGA	6 Jarraitu irakurtzen
MEDIKAMENTUEN SEGURTASUNA: INFORMAZIO BERRIA Gabapentina: abstinentsia-sindromea, mendekotasuna eta larruazaleko erreakzio larriak Dorzolamida: hipertentsio arteriala eta takikardia Ketoprofenoa bide topikotik: kontraindikatura haurdunaldiaren azken hiruhilekoan	7 Jarraitu irakurtzen
ARGITALPEN INTERESGARRIAK INFAC buletin berria: "Hormona bidezko kontrazepzioa eguneratzea" Ahotik hartzeko semaglutida: Medikamentu berriak ebaluatzeko fitxa eta Publizitatearen kritika 20 POEMS (Patient Oriented Evidence Matters) onenak Saihestu beharreko medikamentuen 2023ko zerrenda (<i>Prescrire</i> aldizkaria)	8 Jarraitu irakurtzen
HORNIDURA-GABEZIAK ETA -BERREZARPENAK 2022ko abenduko nabarmenenak	9 Jarraitu irakurtzen
HILEKO BERRITASUNAK ERREZETA BIDEZ PRESKRIBATZEN DIREN MEDIKAMENTUETAN 2022ko abenduko berritasunak	10 Jarraitu irakurtzen

1

TXERTO BERRIA HAURREN TXERTAKETA-EGUTEGIAN: DTPa-VPI

EAEko 2022ko haurren txertaketa-egutegian, txerto bat gehitu zaie **6 urteko haurrei, Difteria-Tetanos-Tosferina-Poliomielitis (DTPa-VPI) txertoa 2017tik aurrera jaiotakoentzat** (hau da, 6 urte 2023an betetzen dituztenentzat).

Horretarako, Osasun Sailak Sanofi laborategiaren txerto kuartribalente berri bat erosteko izapideak egin ditu, **TETRAXIM®** delakoa. Laster egongo da eskuragarri. LMAko Farmaziatik jakinaraziko dizuegu noiz heltzen den gure biltegira, osasun-zentroetatik eskabideak egin daitezzen.

Hona hemen esteka: [Tetraximaren fitxa teknikoa](#)

[Itzuli HASIERAra](#)

2

AEB-ETAKO IKASLEAK TXERTATZEA ETA LAN-ARRAZOIENGATIK TXERTATZEA

Eusko Jaurlaritzako Osasun Saileko Epidemiologia Unitateak zalantzak eragin ohi dituzten egoera batzuetan zein txertaketa-gomendio aplikatu daitekeen gogorarazi digu. Gomendio horietatik, hauek nabarmendu nahi izan ditugu (dokumentu osoa kontsultatzeko, egin klik [esteka](#) honetan).

Estatu Batuetara ikastera doazen gazteen txertaketa:

- AEBak ez dira endemia handiko herrialdea, txertoa jartzea eskatzen den gaixotasunei dagokienez.
- Osasun-zentroetan eskuragarri ditugun txertoak ez dira erabili behar AEBetako ikastetxeen administrazio-eskakizunak betetzeko.
- Txertoak finantzatzearen arazoia herritarron osasuna bermatzea da; beraz, ez dira finantzatu behar osasunerako arriskutsuak ez diren egoeretan. Nolanahi ere, txertoren bat ezin bada eskuratu, hornidurarik ez dagoelako edo farmazian eskuratu ezin delako eta alternatibarik ez dagoelako, **Osasun Sailak bai emango die** txerto jakin hori behar dutenei, une honetan **Polioaren aurkako Txerto Inaktibatuarekin (VPI)** egiten ari den bezala.

Lan-arrazoiengatik txertatzea

Egiten duen lan motagatik txertoa eskatzen duen baten bat badator osasun-zentrora, **bere enpresak kontratatuta duen Lan Arriskuen Prebentzio Zerbitzura bideratu behar dugu**; izan ere, enpresak berak hartu behar du bere gain lanpostuko arriskuak baloratzeko ardura, bai eta beharrezkoa den kasuetan txertoa emateko eta langileen kontrol serologikoa egiteko erantzukizuna ere.

[Itzuli HASIERAra](#)

3

TXIMINO-BAZTANGA (MONKEYPOX): EGUNERATZEA

Abenduaren 7an, [Tximino-baztangaren agerraldiko txertaketa-gomendioen eguneratzea](#) argitaratu zen, Osasun Publikoko Batzordeak onartua. Espero denez 2023an dosi gehiago eskuragarri egotea, **bigarren dosiak ematea eta xede-populazioaren kaptazio-irizpideak malgutzea** bezalako neurriak jaso dira dokumentu horretan.

Horrekin lotuta, Eusko Jaurlaritzako Osasun Sailak, abenduaren 14an, [Euskal Autonomia Erkidegoko Tximino-baztangaren kontrako Txertaketa Plan Operatiboa](#) argitaratu zuen.

Hona hemen planean jasotako txertaketarako lehentasun-irizpideak:

1. Esposizioaren aurreko profilaxia:

- 1.1. Gaixotasuna izan ez duten pertsonak, baztangaren aurkako txertoa hartu ez dutenak eta arrisku handiko sexu-praktikak dituztenak.
- 1.2. Arrisku okupazionala duten pertsonak, baldin eta ezin bada bermatu norbera babesteko elementuen erabilera egokia.

2. Esposizio osteko profilaxia (PEP, gaztelaniaz)

- 2.1. Gaixotasun larria izateko arrisku handia duten kontaktu estuak:

- 2.1.1. Haurrak.
- 2.1.2. Haurdunak.
- 2.1.3. Immunodepresioa duten pertsonak.
- 2.2. Baieztatutako kasuekin kontaktuan egon diren eta NBEa erabiltzean gorabeheraren bat izan duten osasun-langileak.
- 2.3. Kasu susmagarrien edo baieztatuena laginak maneiatzen dituzten laborategiko langileak, baldin eta NBEa erabiltzean gorabeheraren bat izan badute.

Gomendatutako txertaketa-pauta bi dosikoa da, batetik bestera gutxienez 28 eguneko tartea utzita. **Dosi gehiago eskuragarri badaude, bi dosiko pauta beteko da.**

Besterik adierazi ezean, 18 urtekoei eta hortik gorakoei 0,1 ml-ko dosia emango zaie dermis barnetik, eta 18 urtetik beherakoei, haurdun daudenei eta immunodepresioa duten pertsonen 0,5 ml-ko dosia larruazalpetik. Baztangaren aurkako txertaketa-aurrekaria duten pertsonen kasuan, bigarren dosia ez ematea azter daiteke.

Esposizioaren aurreko profilaxirako **pertsonen kaptazioa egiteko**, estrategia paraleloak hartu ahalko dira: **Proaktiboa, Oportunistak edo Eskaeraren arabera.**

[Itzuli HASIERAra](#)

4 COVID-19AREN KONTRAKO TXERTAKETA ESTRATEGIA EGUNERATU DA

Abenduan, Osasun Publikoko Batzordeak eguneratu egin zituen [COVIDaren aurkako txertaketa-gomendioak Espainian, udazken-negura begira](#).

Aldaketa nagusia **12-60 urte bitarteko pertsonentzako bigarren orotzapen-dosia txertatzea da.**

Halaber, **immunosupresio maila handia duten 6-59 hilabete bitarteko haurren lehen txertaketa gomendatzen da.** Horretarako, txerto monobalente espezifiko bat erabiliko da, 3 mcg/dosikoa, oraingoz eskuragarri ez duguna.

Gomendio horiek kontuan hartuta, [COVIDaren aurkako txertaketa-estrategia](#) eguneratu da Euskadin. Dokumentuaren laburpen bat kontsultatzeko, egin klik [esteka](#) honetan.

[Itzuli HASIERAra](#)

5 FINANTZATUTAKO FORMULA MAGISTRAL BERRIA: ATROPINA KOLIRIOA % 0,01

2022ko abenduaren 22tik, formula magistral hau sartu da **finantzaketan eta errezeta elektronikokan**:

- Atropina % 0,01 Kolirioa 10 ml (Kodea: 140555)

Formula hori **errezeta elektronikok bidez baino ezin izango da finantzatu.**

E-rezetan sartzen diren formula magistralen zerrenda eta haien finantzaketa-baldintzak Sailaren webgunean kontsulta daitezke, esteka honetan klik eginez:

[Formula magistralak e-rezetan](#)

6

BERRITASUNAK PRESBIDEN: PRESKRIBATUTAKO ONTZIEN IRAUPENAREN MUGA

2022ko abendutik, Presbidek **365 eguneko gehieneko muga ezartzen dio preskribatutako ontzien iraupenari**. Oraingoz, arau horrek preskripzio **hasierei baino ez die eragiten**, Etonorgestrelen (Implanon®) salbuespenarekin. Aurrera begira, preskripzioen luzapenetan eta aldaketetan ere aplikatuko da.

Muga hori ezarrita lortu nahi dena da pauta posologiko okerrekin egiten diren preskripzioen kopurua murriztea, orain arte ontziek gehiegi irautea (milaka egun) ahalbidetzen baitzen eta horrek gorabeherak eragiten baitzituen dispentsazioan.

Hortaz, ontziak 365 egunetik gorako iraupena izatea eragiten duen preskripzio baten hasiera sinatzen saiatzen den medikuak abisu hori ikusiko du; hau da, Presbidek preskripzioa zuzentzera derrigortuko du:



Preskripzioa zuzentzen ez badu, ezin izango du sinatu.

[Itzuli HASIERAra](#)

7

MEDIKAMENTUEN SEGURTASUNA: GABAPENTINA, DORZOLAMIDA ETA KETOPROFENOA BIDE TOPIKOTIK

Giza erabilerarako medikamentuei buruzko [AEMPSen 2022ko urriko segurtasun-buletina](#) argitaratu da. Farmakozaintzako datuen aldizkako ebaluazioaren ondoriozko segurtasuneko informazio berria jasotzen du, medikamentuen fitxa teknikoetan eta erabilera-orrietan txertatuko dena: Honako hau nabarmendu dute buletin berrian:

- Gabapentina: Stevens-Johnson sindromea (SSJ), nekrolisi epidermiko toxikoa (NET), DRESS sindromea eta mendekotasuna eta abstinentsia-sindromea gabapentinarekin tratatutako pazienteetan eta jaioberrietan haurdunaldiko esposizioaren ondoren.
- Dorzolamida: hipertentsio arteriala eta takikardia, farmako honentzat identifikatutako kontrako erreakzio berriak.
- Ketoprofenoaren formulazio topikoak haurdunaldiaren azken hiruhilekoan: bihotz-biriketako eta giltzurrunetako toxikotasuna izateko arriskua fetuan, amaren eta jaioberriaren odoljario-denbora luzatzeko arriskua, eta erditze atzeratua izateko arriskua. Kontraindikatuta dago haurdunaldiaren azken hiruhilekoan.

[Itzuli HASIERAra](#)

8 ARGITALPEN INTERESGARRIAK

- **INFAC buletina:** ale berria argitaratu da, "[Hormona bidezko kontrazepzioa eguneratzea](#)". Azken ale horretan, hormona bidezko antisorgailu motak eta horien kontrako efektuak berrikusi dira, eta tratamendua hautatzean eta egoera espezifikoetan (ahaztutakoan, larrialdiko kontrazepzioa egin behar denean) kontuan hartu beharreko alderdiei buruzko informazioa eman da. Zentroetan gaia landu nahi izanez gero, [aurkezpen hau](#) duzue eskuragarri.
- **Aztertuko den medikamentu berria: Ahotik hartzeko semaglutida (Ryblesus®).** Euskadiko Medikamentu Berrien Ebaluazio-Batzordeak (CENM) egindako [Ebaluazio-fitxa](#) eta [Publizitatearen kritika](#) argitaratu dira.
- American Family Physician elkartearen **2021eko 20 POEMS (Patient Oriented Evidence Matters) onenak** argitaratu dira. Argitalpen horretan jasotako berrikuspenak garrantzi klinikoagatik, baliozkotasunagatik eta emaitzengatik aukeratuak izan dira; praktika klinikoa alda dezaketelako, hain zuzen. Erraz ulertzeko moduko taulatan bildu dira, galdera klinikoen eta erantzun laburren formatuan. Gaztelaniara itzulitako taulak SACYL elkartearen Portal del Medicamento atariko [esteka](#) honetan kontsulta daitezke.
- **Prescrire aldizkariak "Saihestu beharreko medikamentuen 2023ko zerrenda" argitaratu du.** Berrikuspen horretan 105 farmako sartu dituzte guztira, Frantzia edo Europar Batasunean baimendutako indikazio guztietan duten onura-arrisku erlazioa ona ez delakoan. Kontsultatu nahi izanez gero, hortxe [esteka](#).

[Itzuli HASIERAra](#)

9 HORNIDURA-GABEZIAK ETA -BERREZARPENAK

Hona hemen hilabete honetako HORNIDURA-GABEZIArik garrantzitsuenak:

- **Bemolan® 2000 mg** ahotiko gela (Magaldratoa). Ez finantzatua. Baloratu 800 mg-ko aurkezpena erabiltzea edo beste printzipio aktibo batekin ordezkatzeta.
 - **Benoral®** suspentsioa 100 ml (Fenoximetilpenizilina-benzatina). Alternatiba: Penilevel (zorroak, konprimatuak).
 - **Cholestagel** 625 mg 180 konp. estali (Kolesebelam hidrokloruroa). Baloratu beste erretxina ioi-trukatzaile bat erabiltzea.
 - **Kolirofta atropina** 10 mg/ml kolirio soluzioa, 10 ml (Atropina). Alternatiba: Presbiden atropina oftalmikoko finantzatatutako formulazio magistral bat jarri dago eskuragarri (Atropina % 0,01 kolirioa 10 ml).
 - **Depakine Crono® 300 mg** (Az. balproikoa, Balproato sodikoa): Depakine 200 mg eta 500 mg konp. gastroerresistenteak eskuragarri.
 - **Fluboxamina (Dumirox® eta EFG)** 50 mg eta 100 mg konp. estali: 100 mg-ko Fluboxanina unitateen banaketa kontrolatua egiten ari da.
 - **Efferalgan® pediatrikoa 30 mg/ml**, 90 ml-ko flaskoa (paracetamola). Baloratu paracetamolaren beste aurkezpen batzuk erabiltzea dosifikazio desberdinekin (65 mg/ml edo 100 mg/ml).
 - **Ezetimiba/Atorbastatina 10/10 mg** 30 konp. Alternatiba: Preskribatu printzipio aktiboak bereizita, baita konbinazio horren beste dosifikazio batzuk ere.
 - **Flecard®** 100 mg 30 eta 60 konp. (Flekainida). Erabili Flekainida duten beste aurkezpen batzuk.
 - **Gine-Canesten® 100 mg baginako konp.** (Klotrimazola).
 - **Magnesioboi®** 48,62 mg, 50 konp. (Magnesia, laktatoa).
 - **MST Continus® 30 mg** 60 konp. Ask. luz. (Morfina, sulfatoa).
 - **Muse®** 500 mcg eta 1000 mcg uretrako txotxa (Alprostadil). Biltegiren batean badago. Baloratu beste medikamentu batzuk erabiltzea.
 - **Plazinorala** 2 mg 30 konp. (Lorazepam). Alternatiba: 1 mg-ko Lorazepam aurkezpenak eskuragarri.
-

- **Potasionea** 600 mg 60 kap. (8 mEq Potasio/kap.). Alternatiba: **Boi K®** (10 mEq Potasio/konp.) eskuragarri.
- **Ozempic® 0,5 mg eta 1 mg** sol. injehtagarria luma aurrekargatua. (Semaglutida). Beste alternatiba batzuk: 0,25 mg-ko luma eskuragarri dago; bestela, ordezkatu asteko Dulaglutidarekin: **Trulicity®** 0,75 mg (**Ozempic®** 0,5 mg-ren alternatiba) eta **Trulicity®** 1,5 mg (**Ozempic®** 1 mg-ren alternatiba).
- **Plusvent® 25 mcg/50 mcg**/inhalazioa (Flutikasona/Salmeterola), inhalaziorako susp., inh. 120 dosi. Baloratu beste inhalagailu batzuk erabiltzea.
- **Tandemact 30 mg/2 mg** konp. (Pioglitazona/Glimepirida): Oraingoz, eskuragarri dago 30 mg/4 mg-ko aurkezpena; printzipio aktiboak, bereizita.
- **Trankimazin Retard® 1 eta 3 mg**, 30 konp. **Alternatiba: Alprazolam, askapen normaleko konprimatuak.**
- **Ventolin®** sol. arnagailurako 0,5 mg/ml (salbutamola). Alternatiba: konposizio bera duten beste medikamentu batzuk daude.
- **Zyntabac®** 150mg-ko aurkezpenak, 30, 60 eta 100 konp. (Bupropion): konposizio bera duten eta finantzatuta dauden beste bupropion marka batzuk ere badaude, eta preskripzioa aldatu beharrik gabe eman daitezke.

HORNIDURA-BERREZARPENAK:

- **Altellus® 300 mcg** luma aurrekargatua (Epinefrina).
- **Asacol® 800 mg** konp. (Mesalazina).
- **Bactroban® sudurretik hartzeko 20 mg/g pomada** (Mupirozina).
- **Benerva® 300 mg 20 konp.** (Tiamina).
- **Desloratadina EFG 0,5 mg/ml 120ml ahotik hartzeko sol.**
- **Dolocetil® 65 mg/ml ahotik hartzeko sol.** (Parasetamol).
- **Fiasp Penfill 100 U/ml, 5 kartutxo 3 ml** (Aspart intsulina).
- **Gine-Canesmed 20 mg/g 20 g-ko hodia eta Gine-canesten 20 mg/g bagina-krema** (Klotrimazola).
- **Kentera® 3,9 mg/24 orduko, 8 txapla transdermiko** (Oxibutinina).
- **MST Continus® 5 mg eta 10 mg** 60 ask. luz. konp. (Morfina, sulfatoa).
- **Lactulosa Lainco EFG 10 g, 10 eta 50 zorro.**
- **Primobolan depot®** sol. injehtagarria (Metenolona, enantatoa).
- **Ovoplex® 0,15 mg/0,03 mg 21 konp.** (Levonorgestrela/Etinilestradiola).
- **Plurimen 5 mg konp.** (Selegilina).
- **Rifaldin® 100 mg/5ml 120 ml** (Errifanpizina).
- **Rigevidon® 0,15 mg/0,03 mg 21 konp.** (Levonorgestrela/Etinilestradiola).
- **Rivotril® 2 mg** 60 konp. (Klonazepam).
- **Rytmonorm 150 mg eta 300 mg konp.** (Propafenona).
- **Trandate® 200 mg konp.** (Labetalola).
- **Vivotif® kapsula gogorak** (Sukar tifoidearen aurkako txertoa).
- **Wartec® 1,5 mg/g 5 g krema** (Podofilotoxina).
- **Yodafar® 300 mcg 50 konp.** (Potasio ioduroa).
- **Yurelax® 10 mg kapsulak** (Ziklobenzaprina).
- **Zytram Bid® 75 mg** 56 ask. luzatuko konp. (Tramadola).

Hornidura-gabeziak esteka honetan kontsulta daitezke:

- [Hornidura-gabezien taula:](#) Presbiden, zuzenean taula honetara daraman “Hornidura ezak” botoia txertatu da:



- [CIMA-AEMPSen: AEMPSen medikamentuak hornitzeko arazoak](#)

Hauek dira 2022ko abenduko berritasunak:

Diciembre 2022		
	Rosuvastatina/ Ac Acetilsalicílico	Roasax® 5/100, 10/100 y 20/100 mg cáps duras, (otras marcas en vías de comercialización). NUEVA ASOCIACION. Autorizada para la prevención secundaria de eventos cardiovasculares como terapia de sustitución, en pacientes adecuadamente controlados con los componentes individuales a las mismas dosis. Ver Ficha Técnica .
	Tirbanibulina	Klisyri® 10 mg/g pomada, sobres 250 mg. Autorizado para el tratamiento tópico de la queratosis actínica no hiperqueratósica y no hipertrófica (grado 1 de Olsen) de la cara o del cuero cabelludo en adultos. <u>FINANCIACIÓN RESTRINGIDA (VISADO)</u> : pacientes con queratosis actínica múltiples o que requieran tratamiento del campo de cancerización, no candidatos por contraindicación, intolerancia o falta de eficacia a la terapia fotodinámica o al resto de tratamientos tópicos. Enlace a Ficha Técnica
	Vericiguat	Verquvo® 2,5, 5 y 10 mg comp. Autorizado para el tratamiento de la insuficiencia cardíaca crónica sintomática en adultos con fracción de eyección reducida que están estables después de un episodio reciente de descompensación que requirió tratamiento por vía intravenosa. <u>FINANCIACIÓN RESTRINGIDA (VISADO)</u> : tratamiento de la insuficiencia cardíaca crónica en adultos con fracción de eyección reducida, menor de 40%, que hayan presentado descompensaciones recientes con necesidad de diurético intravenoso a pesar de tratamiento médico óptimo y que tras la descompensación se encuentren estables y euvolémicos. Especial precaución en pacientes de edad avanzada, por la mayor susceptibilidad de efectos adversos y por un posible menor beneficio en eficacia. Enlace a Ficha Técnica .

2020ko urtariletik 2022ko abendura bitarteko berriak jasotzen dituen [dokumenturako](#) esteka.

[Itzuli HASIERAra](#)

Lehen Mailako Arretako Farmazia
ARABako ESI-A: farmacia.primariaosiaraba@osakidetza.eus
Farmazialariak: Javier Martínez, Inés San José
Tfno.: 945 006752 / 945 006631



Argitalpen honetan jasotako edukiak Osakidetzako Lehen Mailako Arretako farmazialariek egindako hileko buletinetik egokitu dira.